



1. Gogoetan

Internet itsaso zabala da, eta askotan zail izaten da galdu gabe nabigatzea. Aurkitutako portu batzuen berri eman nahi dizuegu, bidaldi lasai bat opatuz.

- *Juan Kruz Igerabide* idazlea ezagutzeko webgunea sortu dute Salamanca aldean [FGSR](#)rekoek. Bertan, idazleak egin behar zituen bisitaldi batzuen aurretik, ikasleek bere obra ezagutzeko aukera izan dute.
- Beste webgune batean, [leer.es](#)-en, hain zuzen, irakurle ona izateko ideia batzuk aurkitu ditugu, bai guraso eta bai seme-alabentzako. Interesgarriak dira web guneak eskaintzen dituen beste baliabide batzuk ere.
- Irakurzaletasunaren mesedetan, bibliotekan, eskolan edo etxean ezinbesteko tresna izateko bokazioz jaio den [Klis-Klasikoak](#) liburu sorta, eskaintza berezi batekin dator Galtzagorriko bazkide zaren guztiontzat.

2. Egitasmoa martxan

Arrasaten Pello Añorga kontalari eta idazlearen [Nola sortu espazioak elkar entzuteko, eta nola aukeratu eta kontatu liburuak](#) tailerra burutu da hilabete honetan. Talde polita bildu da bertan, eta bukatu ondoren jasotako ebaluazioaren arabera, parte hartzaileak gustura aritu dira, baina gehienei ipuin kontaketa eta liburu aukeraketan gehiago sakontzeko grina sortu zaie.

3. Hausnarketa gunea

2011-2012 ikasturtean berriz ekin diogu ebaluazio prozesuari. Urtero bezala, egitasmoan parte hartzen ari diren 12 herrietan, 3 urteko geletako gurasoen artean banatu da Hasierako Galdekizuna. Hasierako Galdekizun hau abiapuntua azaleratzeko erabiltzen dugu: bertan azaltzen dira gurasoek irakurketarekiko dituzten jarrera eta ohiturak, haur literaturari buruzko ezagutza, biblioteca erabiltzeko maiztasuna...

Ohi den moduan, erantzun ona jaso dugu gurasoen aldetik: banatutako 1.315 galdekizunetatik, 667 ale jaso ditugu osatuta, %51 hain zuzen ere.

Orain, informazio guzti hau prozesatuko dugu, txosten berri bat prestatu ahal izateko.

4. Ongi pasatzeko!

Liburu bitxi bat, Buruko hura nor egin zion jakin nahi zuen satortxoia, Werner Holzwarth-en testu eta Wolf Erlbruch-en ilustrazioz osaturikoa, eta aski ezaguna, ekarriko dugu bistara. 1990koa da lehenen edizioa (Alemanian). Gurean, 1999an izan genuen euskaraz, eta 1991n gaztelaniaz.

20 urte baino gehiago bete dituen arren, ez du batere freskotasunik galdu, eta haurren artean arrakasta segurua du satorrak inguruko guztien gorotzak aztertuz egiten duen paseo bitxiak. [Bideo](#) batean ikusteko aukera ere badugu.